



EBAZPENA, 2026ko martxoaren 6koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko maiatzaren 20ko Ebazpena, argitara ematen duena EAEko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedratiko eta irakasleen kidegoetako eta Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten irakaskuntza-kidegoetako karrerako funtzionarioen autonomia-erkidego mailako 2023/2024ko lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko ebazpena eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioa.

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren bidez (2023ko abenduaren 1eko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoetako funtzionarioen arteko autonomia-erkidego mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egin zen.

Arkaitz Rezola Mendikute jaunak aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri zuen 2023ko azaroaren 22ko Agindu horren aurka, eta eskatu zuen behar bezala baloratzeko karrerako funtzionario, praktiketako funtzionario, bitarteko funtzionario eta lan-kontratadun langile gisa zerbitzu aktiboan emandako zerbitzuak Derioko nekazaritza-eskolan eta Fraisoro Eskola BHIIn.

Hezkuntzako sailburuaren 2024ko ekainaren 13ko Aginduaren bidez, ezetsi egin zen jarritako aukerako berraztertze-errekurtsoa. Horregatik, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren aurka, bai eta berraztertze-errekurtsoa ezesten duen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburuaren 2024ko ekainaren 13ko Aginduaren aurka ere.

2025eko urriaren 20an, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baiesten zuen epaia eman zuen. Honela dio:

«EZ DUT ONARTZEN ARKAITZ REZOLA MENDIKUTE jaunak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren I. eranskineko 1.2 apartatuaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoetako funtzionarioen erkidego-mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egin zen.

Era berean, BAIETSI EGITEN DUT ARKAITZ REZOLA MENDIKUTE jaunak aipatutako 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren aurka eta haren aurka aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa ezesten duen 2024ko ekainaren 13ko Aginduaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, eta, ondorioz:

I. Administrazio-jarduketa baliogabetzen dut, errekurtsogileari behin betiko destinoa esleitzen zaion zatian.

II. Deklaratzen dut demandatzaileak eskubidea duela 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren I. eranskineko 1.2 apartatuko antzinatasun-merezimenduan duen puntuazioa handitzeko, abuztuaren 12ko 158/2012 Dekretutik aurrera lan-legepeko irakasle gisa emandako zerbitzuekin, 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren bidez deitutako lekualdatze-lehiaketan.



III. Deklaratzen dut demandatzaileak eskubidea duela destinoa adjudikatzeko 2023ko azaroaren 22ko lekualdatze-lehiaketaren deialdian egin zuen eskabideko lehentasun-hurrenkeraren arabera, egin behar zen esleipenaren ondorio ekonomiko, juridiko eta gainerakoekin.

Hezkuntzako sailburuaren 2025eko abenduaren 15eko Aginduaren bidez, Arkaitz Rezola Mendikute jaunak jarritako 204/2024 prozedura laburtuan Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 1. Epaitegiak 2025eko urriaren 20an emandako 270/2025 Epaia betetzea xedatzen da.

Hala, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko maiatzaren 20ko Ebazpena aldatu beharra dago. Ebazpen horren bidez, argitara ematen da autonomia-erkidegoko 2023/2024ko lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda eta onartutakoen merezimenduen baremoan lortutako puntuazioa. Horrek esan nahi du 1.2. atalean Arkaitz Rezola Mendikuteri puntuazio handiagoa emango zaiola 2005-09-06tik Derioko Nekazaritza Eskolan eta Fraisoro Eskola BHIIn 2006tik lan-kontratuko langile gisa emandako zerbitzuengatik.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Aldatzea Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko maiatzaren 20ko Ebazpena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko 2023/2024 lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin betiko zerrenda eta onartutakoen merezimenduen baremoa, Arkaitz Rezola Mendikute jaunari dagokionez.

Bigarrena.- Administrazioarekiko Auzien Vitoria-Gasteizko 1. Epaitegiari dagokio epaia betearazteko izapideetan sor litekeen guztiaz arduratzea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 109. artikuluetan xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 6a

UNAI NIETO MARIJUAN
Langileriaren Kudeaketako zuzendaria